


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko abendua

Euskal AEko industri jarduera %1,0 murriztu zen 2013ko abenduan

2013ko industria-balantzea egitean, %3,2ko atzerakuntza dugu, aurreko urtean baino ehuneko 2,7 puntuz hobeto

Eustatek landutako datuen arabera, 2013ko abenduan %1,0 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2012ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %1,4 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko azaroarekin alderatuta.



2013ko abenduko indizean, 2012koaren aldean: Energia %-10,7, Kontsumoko ondasunak %-5,5 (iraunkorrek %-23,4, ez-iraunkorrek %+1,4). Ekipo-ondasunak %2,5 gehitu dira, Bitarteko ondasunak %1,3.

Hil arteko aldaketa, 2013ko abendua azaroaren aldean, positiboa izan da Energian, %2,0 eta Ekipo ondasunetan, %2,4. Bitarteko ondasunak %0,3 jaitsi dira, eta Kontsumo-ondasunak %1,8. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrek %5,2 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek %0,5.

Urte artean, euskal industriako sektore handien artean, bi hazi dira 2013ko abenduan: Garraio materiala %19,4 eta Elikagai industriak, edariak eta tabakoa %2,9.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-9,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,8
13 - Makineria eta tresneria	-1,4
14 - Garraio-materiala	19,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	2,9
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-10,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Material eta Ekipo elektrikoan urte arteko %10,4ko jaitsiera dago; Energia elektriko, gas eta lurrunean %-9,4, Kautxu eta plastikoan %-1,8.

Abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%6,0) eta Gipuzkoan (%0,7); negatiboa Bizkaian (%-6,7). Hil artean, Gipuzkoak %+3,1 eta Arabak %+2,3; Bizkaia %-0,9, 2013ko azaroaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 abendua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abe2013 / Abe2012	M(Abe2013) / M(Abe2012) *	Abe2013 / Aza2013	Aza2013 / Urr2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,0	-3,2	1,4	-1,6
Araba/Álava	6,0	-2,6	2,3	-1,6
Bizkaia	-6,7	-4,3	-0,9	-0,8
Gipuzkoa	0,7	-2,4	3,1	-2,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,5	-5,1	-1,8	-1,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-23,4	-10,6	-5,2	0,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,4	-2,7	-0,5	-1,3
Ekipo-ondasunak	2,5	-3,3	2,4	-5,4
Bitarteko ondasunak	1,3	-2,5	-0,3	0,4
Energia	-10,7	-2,4	2,0	2,0

(*) 2013ko urtarritetik oraingo hilerara arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

2013ko industri jardueraren balantzea

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen balantzean %3,2ko jaitsiera dugu 2013an. Aurreko urteko industri jardueraren murrizketa %5,9koa izan zenez, hobera egin da ehuneko 2,7 puntuz.

Urteko metatuan, aztertutako industri sektore handi guztietan jaitsierak ditugu. Ekipo ondasunak %-3,3, Energia %-2,4, Tarteko ondasunak %-2,5. Kontsumo-ondasunak,

oro har, %5,1 jaitsi dira. Horien baitan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %10,6 jaitsi ziren, eta ez-iraunkorrak %2,7, 2012.aren aldean.

2013ko aldakuntza metatuak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian %-4,3, Araban %-2,6, Gipuzkoan %-2,4.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua